

Armanak Askara

edo



Iberouko Egunaria

1891 gerren oorrtheko

Jinkoua eta Herria !
Zuhurtarzuna eta lana !
Eta bizi bethi Uskalduna !
Iao ! Iao !
I-a-a-a-a-o-o-o-o-o-o !

SALTZEN DA

Maoulen DETCHEVERRY enian	Atharratzen CAUTURE enian
------------------------------	------------------------------

Prezioua : BI SOS



BEGITHARTE HORIEK :

- (E) *erran nabi da* : Estiapen hastia *edo argizagi bethe*.
(F) " Argizagi azken laourdena.
(G) " Gorapen hastia *edo argizagi berri*.
(H) " Argizagi lehen laourdena.
-

OURTHEKO BESTA KHANBIAKORRAK :

SETUAJESIMO, *ourtharilaren* 25^{an}; — HAOUSTE, *baranthailaren* 11^{an}; — BAZKO, *gorotzilaren* 29^{an}; — ERROGAZIONIAK, *maiatzaren* 4ⁿ, 5ⁿ eta 6^{an}; — SALBATORE, *maiatzaren* 7^{an}; — PHENTEKOSTE, *maiatzaren* 17^{an}; — BESTABERRI, *maiatzaren*, 28^{an}; — ABENTUKO LEHEN IGANTIA, *azarouaren*, 29^{an}.

LAOUR THENPORAK :

Baranthailaren 18 ⁿ , 20 ⁿ eta 21 ^m .	{	Buruilaren 16 ⁿ , 18 ⁿ eta 19 ⁿ .
Maiatzaren 20 ⁿ , 22 ⁿ eta 23 ⁿ .		Abentiaren 16 ⁿ , 18 ⁿ eta 19 ⁿ .

EKHI ETA ARGIZAGI ULHUNTZIAK :

Argizagi ulhuntze osoua, *maiatzaren* 23^{an}; pharte ikhousiren da Uskalherrian arratseko 6 oren etarik eta 7 oren eta laourden artio. — Ekhi ulhuntze osoua, *arramaiatzaren* 6^{an}; pharte ikhousiren da Uskal Herrian, arrastiriko 4 oren eta 5^{en} artian. — Argizagi ulhuntze osoua, *azarouaren* 15^{an}, ikhousiren dena Uskalherrian; hatsarria gaiko 11 oren eta laourden etan, eta iranen du goizanko oren bakhoitza eta erdi artio. — Ekhi ulhuntze phartezkoua, *abentu* 1^{an}; ezta ikhousiren Uskalherrian.

OURTHARILA

Egunak luzatzen dira oren batez.



- Ⓛ a.l. 3ⁿ, goizanko 10^{or} eta 22^{min}
 Ⓛ a.b. 10ⁿ, arristiriko 3^{or} eta 34^{min}
 Ⓜ l.l. 17ⁿ, goizanko 6^{or} eta 27^{n in}
 Ⓝ a.b. 25ⁿ, gaiherdi eta 35^{min}

BARANTHAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- Ⓛ a.l. 5^{an}, goizanko 4^{or} eta 52^{min}
 Ⓛ a.b. 9^{an}, goizanko 2^{or} eta 21^{min}
 Ⓜ l.l. 15^{an}, arratseko 2^{or} eta 39^{min}
 Ⓝ a.b. 23^{an}, arratseko 20^{or} eta 28^{min}

1 Ost. OURTHAT	ZIRKONZISION
2 Ostirale.	s. Makaire.
3 Neskanegun.	sa Jenovieva.
4 Igante.	sa Fausta.
5 Astelehen.	sa Amelia.
6 Asteharte.	APHARIZIO.
7 Astizken.	sa Melania.
8 Ostegun.	s. Luzien.
9 Ostirale.	s. Julien.
10 Neskanegun.	s. Marzien.
11 Igante.	s. Teodoso.
12 Astelehen.	sa Taziena.
13 Asteharte.	s. Leonze.
14 Astizken.	s. Hilera.
15 Ostegun.	s. Phaoule, erm.
16 Ostirale.	s. Marzel.
17 Neskanegun.	s. Antoni, er.
18 Igante.	J. Phetir. Err. Jartia
19 Astelehen.	s. Kanut.
20 Asteharte.	s. Fabien eta Sebast.
21 Astizken.	sa Añes.
22 Ostegun.	s. Bizente.
23 Ostirale.	s. Remoun.
24 Neskanegun.	s. Timote.
25 Igante.	J. Phaouleren k.
26 Astelehen.	s. Polikarpe.
27 Asteharte.	s. Johane Kris.
28 Astizken.	s. Amedeo.
29 Ostegun.	s. Frantzes S.
30 Ostirale.	sa Martina.
31 Neskanegun.	s. Petiri Nol.

1 Ig. Setsajes.	s. Igñazio.
2 Astelehen.	KHANDERALLU
3 Asteharte.	s. Blasi.
4 Astizken.	sa Jana, Val.
5 Ostegun.	sa Agata.
6 Ostirale.	sa Dorotea.
7 Neskanegun.	s. Romuald.
8 Ig. Kinkajes.	s. JohaneMatha.
9 Astelehen.	sa Apolonia.
10 Asteharte.	sa Eskolaztika.
11 Astizken.	HAOUSTE.
12 Ostegun.	s. Tito.
13 Ostirale.	s. Jilbert.
14 Neskanegun.	s. Valenti.
15 Igante.	GOROZUM. 1 ^a .
16 Astelehen.	sa Juliena.
17 Asteharte.	s. Hijin.
18 Astizk. IV Th.	s. Flavien.
19 Ostegun.	s. Konrad.
20 Ostir. IV Th.	s. Eucher.
21 Nesk. IV Th.	s. Pepin.
22 Ig. Goroz. 2 ^a	J. Phetir. Ant. Jart.
23 Astelehen.	s. Dosite.
24 Asteharte.	J. MATHIAS, ap.
25 Astizken.	s. Zezaire.
26 Ostegun.	sa Batilda.
27 Ostirale.	sa Onorina.
28 Neskanegun.	s. Rufin.

MARTCHOUA edo GOROTZILA

Egunak luzatzen dira 2 orenez.



- (Q) a. l. 3^{an}, arratseko 7^{or} eta 47^m.
 (B) a. b. 10^{an}, eguerditan.
 (D) l. l. 17^{an}, goizanko 9^{or} eta 20^m.
 (E) a. b. 25^{an}, arrastiriko 1^{or} eta 21^m.

APHIRILA edo JORRAILA

Eg. luzatzen dira oren 1 eta erdiz.



- (F) a. l. 2^{an}, goizanko 6^{or} eta 40^m.
 (G) a. b. 8^{an}, arratseko 9^{or} eta 6^m.
 (H) l. l. 16^{an}, goizanko 10^{or} eta 50^m.
 (I) a. l. 24^{an}, goizanko 5^{or} eta 15^m.

I Ig. Goroz. 3^a.

2 Astelehen.

3 Asteharte.

4 Astizken.

5 Ostegun.

6 Ostirale.

7 Neskanegun.

8 Igante.

9 Astelehen.

10 Asteharte.

11 Astizken.

12 Ostegun.

13 Ostirale.

14 Neskanegun.

15 Igante.

16 Astelehen.

17 Asteharte.

18 Astizken.

19 Ostegun.

20 Ostirale.

21 Neskanegun.

22 Igante.

23 Astelehen.

24 Asteharte.

25 Astizken.

26 Ostegun.

27 Ostirale.

28 Neskanegun.

29 Igante.

30 Astelehen.

31 Asteharte.

s LÉON, Baion.

s. Zimiplize.

s^a Kunegonda.

s. Kasimir.

s. Teofile.

s^a Koleta.

s. Tomas Akin

Gorozum. 4^a.

s^a Frantzes.

40 Martirak.

s. Konstanti.

s. Gregori handia

s^a Ufrasia.

s^a Matilda.

PASIONIA.

s. Ziriake.

s. Patrick.

s. Gabriel, Ark.

s. JOSEF.

s. Joakim.

s. Benedict.

ERRAMU.

s^a Pelajia.

s. Gabriel.

Ann, igoririk.

Osteg. saintu.

Ostir. saintu.

Nesk. saintu.

BAZKO.

s. Amedeo.

s^a Benjamin.

1 Astizken.

2 Ostegun.

3 Ostirale.

4 Neskanegun.

5 Ig. Quasim.

6 Astelehen.

7 Asteharte.

8 Astizken.

9 Ostegun.

10 Ostirale.

11 Neskanegun.

12 Igante.

13 Astelehen.

14 Asteharte.

15 Astizken.

16 Ostegun.

17 Ostirale.

18 Neskanegun.

19 Igante.

20 Astelehen.

21 Asteharte.

22 Astizken.

23 Ostegun.

24 Ostirale.

25 Neskanegun.

26 Igante.

27 Astelehen.

28 Asteharte.

29 Astizken.

30 Ostegun.

s. Huges.

s. Frantzes P.

s. Richart.

s. Isidro, Aph.

s. Bizente Ferr.

Anoutzialozia.

s. Herman.

s. Albert.

s. Akazio.

s. Fulbert.

s. Leon handia

s. Jules.

s^a Hermenej.

s. Lanbert.

s^a Anastazia.

s^a Grazi.

s. Anizet.

s. Elutero.

s. Leon IX.

s. Teotimo.

s. Anzelmo.

s. Soter eta Kaio.

s. Jeorji.

s. Fidel.

s. MARK, Eb.

s. Klet eta Mar.

s. Zerazio.

J. Phaoule, K.

s. Phetiri, m.

s^a Katalina, S.

MAIATZA edo EPHAILA

Eg. luzatzen dira oren eta laourdenez

+++

- (Q) a.l. 1^{an}, arrastiriko 2^{or} eta min. 1^{an}.
- (Q) a.b. 8^{an}, arratseko 6^{or} eta 25 min.
- (D) l.l. 15^{an}, arratseko 7^{or} eta 14 min.
- (Q) a.b. 23^{an}, goizanko 6^{or} eta 35 m.
- (Q) a.l. 30^{an}, arratseko 7^{or} eta 4 min.

ARRAMAIATZA edo EKHAINA

Eg. luz. dira oren eta 1/4, 22^a drano.

+++

- (Q) a.b. 6^{an}, arrastiriko 4^{er} eta 35 m.
- (D) l.l. 14^{an}, eguerde eta 43 min.
- (Q) a.b. 22^{an}, goizanko 5^{or} eta 21 m.
- (Q) a.l. 28^{an}, arratseko, 11^{or} eta 25 m.

- | | |
|---------------------|------------------------|
| 1 Ostirale. | s. Filipe et. Jak. Ap. |
| 2 Neskanegun. | s. Atanasio. |
| 3 Igante. | Da KHURUTZE |
| 4 Astel. Rogaz. | ss. Monika. |
| 5 Asteh. Rogaz. | s. Pio V. |
| 6 Astiz. Rogaz. | J. Johane, Eb. B.L. |
| 7 Ostegun. | SALBATORE |
| 8 Ostirale. | J. Migelen ag. |
| 9 Neskanegun. | s. Gregori. |
| 10 Igante. | s. Antonin. |
| 11 Astelehen. | s. Oriens. |
| 12 Asteharte. | s. Nere eta Akil. |
| 13 Astizken. | s. Jenio. |
| 14 Ostegun. | s. Bonifazio. |
| 15 Ostirale. | s. Isidro, labor. |
| 16 Nesk. Barour. | A.B. Laguntzalia. |
| 17 Igante. | PHENTEKOSTE. |
| 18 Astelehen. | s. Venanzio. |
| 19 Asteharte. | ss. Pudenziana. |
| 20 Astizken. | s. Bernardin S. |
| 21 Ostegun. | s. Jermeri. |
| 22 Ostirale. | sa Kiteria. |
| 23 Neskanegun. | s. Desire. |
| 24 Igante. 1 | TRINITATE. |
| 25 Astelehen. | s. Gregori VII. |
| 26 Asteharte. | s. Filipe Neri. |
| 27 Astiz. IV Th. | sa. M. Madal. P. |
| 28 Ostegun. | BESTABERRI. |
| 29 Ostir. IV Th. | s. Matsimen. |
| 30 Nesk. IV Th. | s. Felis. |
| 31 Igante. 2 | sa Anjela. |

- | | |
|---------------------|----------------------|
| 1 Astelehen. | s. Panfile. |
| 2 Asteharte. | s. Potin. |
| 3 Astizken. | sa Klotilda. |
| 4 Ostegun. | s. Franzes Kar. |
| 5 Ostirale. | J. BIHOTZ SAK. |
| 6 Neskanegun. | s. Norbert. |
| 7 Igante. 3 | s. Jilbert. |
| 8 Astelehen. | s. Medart. |
| 9 Asteharte. | sa Pelajia. |
| 10 Astizken. | sa Margarita. |
| 11 Ostegun. | s. BARNABÉ, ap. |
| 12 Ostirale. | J. Johane, Fak. |
| 13 Neskanegun. | s. Antoni Pad. |
| 14 Igante. 4 | s. Basila. |
| 15 Astelehen. | sa Jermenia. |
| 16 Asteharte. | s. Frantzes R. |
| 17 Astizken. | s. Avit. |
| 18 Ostegun. | sa Marina. |
| 19 Ostirale. | s. Gervasi eta Prot. |
| 20 Neskanegun. | s. Juliana Falk. |
| 21 Igante. 5 | s. Louis Gonz. |
| 22 Astelehen. | s. Paulin. |
| 23 Asteharte. | s. Eusebio. |
| 24 Astizken. | J. JOHANE BA. |
| 25 Ostegun. | sa Eurosia. |
| 26 Ostirale. | J. Johane eta Paule. |
| 27 Nesk. Barour. | s. Prosper. |
| 28 Igante. 6 | s. Irene. |
| 29 Astelehen. | J. PETIRI eta P. |
| 30 Asteharte, | J. Phaouler. or. |

UZTAILA

Egunak llaburtzen dira oren 1ez.



- a. b. 6^{an}, goizanko 4^{or} eta 8^{min}.
 ○ l. l. 14^{an}, goizanko 5^{or} eta 38^m.
 ○ a. b. 21^{an}, arastiriko 2^{or} eta 3^m.
 ○ a. l. 28^{an}, goizanko 4^{or} eta 42^m.

AGORRILA

Eg. llaburtzen dira oren 1 eta erdiz



- a. b. 4^{an}, arastiriko 5^{or} eta 22^m.
 ○ l. l. 12^{an}, arastiriko 4^{or} eta 21^m.
 ○ a. b. 19^{an}, arastiriko 9^{or} eta 38^m.
 ○ a. l. 26^{an}, eguerdi eta 19^{min}.

1 Astizken.	s. Tierri.	1 Neskanegun.	J. Phetiri katietan.
2 Ostegun.	A. B. BISITAZ.	2 Igante. 11	s. Alfonzo Lig.
3 Ostirale.	s. Gillelme.	3 Astelehen.	J. Esteberen edir.
4 Neskanegun.	s. Marzial.	4 Asteharte.	s. Dominiche.
5 Igante. 7	J.K. ODOL PR.	5 Astizken.	A.D.M. Elbur.
6 Astelehen.	s. Norbert.	6 Ostegun.	J. K. Transfig.
7 Asteharte.	s. Laourenz.	7 Ostirale.	s. Kajetan.
8 Astizken.	s. Ujena.	8 Neskanegun.	s. Ziriako.
9 Ostegun.	s. Elisabet, p.	9 Igante. 12	s. Jermen.
10 Ostirale.	Zazpi anaie m.	10 Astelehen.	s. Laoureng, m
11 Neskanegun.	s. Pio.	11 Asteharte.	s. Tiburze.
12 Igante. 8	J. Johane Galbert	12 Astizken.	s. Klara.
13 Astelehen.	s. Anaklet.	13 Ostegun.	s. Radegonda.
14 Asteharte.	s. Bonaventura	14 Ostirale.	s. Euz. Barour
15 Astizken.	s. Henrik.	15 Neskanegun.	A. D. MARIA.
16 Ostegun.	A.D.M. KARM.	16 Igante. 13	s. Joakim.
17 Ostirale.	s. Aletsis.	17 Astelehen.	s. Emilia.
18 Neskanegun.	s. Kamille.	18 Asteharte.	s. Elena.
19 Igante. 9	s. Fizente Paulo.	19 Astizken.	s. Filomena.
20 Astelehen.	s. Filibert.	20 Ostegun.	s. Bernat.
21 Asteharte.	s. Pratseda.	21 Ostirale.	s. Julien Leskar.
22 Astizken.	s. Maria Magd.	22 Neskanegun.	s. Ipolita.
23 Ostegun.	s. Apolinari.	23 Igante. 14	s. Filipe Beniti.
24 Ostirale.	s. Kristina.	24 Astelehen.	s. BARTTOL., a.
25 Neskanegun.	J. JAKOBE, ap.	25 Asteharte.	s. Louis, ereg.
26 Igante. 10	s. Anna.	26 Astizken.	s. Zefirin.
27 Astelehen.	s. Galatori.	27 Ostegun.	s. Zezaire.
28 Asteharte.	s. Nazari eta Zeize.	28 Ostirale.	s. Agosti.
29 Astizken.	s. Martha.	29 Neskanegun.	J. Joh. lephom.
30 Ostegun.	s. Abdon.	30 Igante. 15	s. Rosa Lima.
31 Ostirale.	s. Inazio Loyola.	31 Astelehen.	s. Remoun Nonat.



AITA AMEN EGINBIDIAK

AIBEROUKO armanakaren hatsarretik, bethi aita eta amen antsia erakharrí dugu haourren eskolatziala, eta oraiko goberniak ezarten dutian eskoletara. Manatzen du eztadin Erreligionerik erakats eskola komunaletan, hori beita Jinkorik ezpaliz bezala haourren eskolatzia, eta mundu hountako eta besteko haien galtzia. Erakoutsi dugu eztagola goberniari jujatzia haourrer zer gisatako eskola eman behar dien aita eta amek; hoiek libre utzi behar diela egiteko hortan gañen: eta orano zouñ diren aita eta amen eginbidiak oraiko denbora nahasian.

Jinkouaren jabegouatik landan gorena denak, eta khiristi guziek ezagutu eta jarraiki behar dianak, fedia-ren eta arimaren galtzeko phenan, Leon XIII, goure. Aita Saintiak, bermatu eta gothortu dutu laour ourthe hountan arra erran deitziegun gomendiak. Mundu orotara igorri du guthunbat erakousteko zouiñ diren oraiko denboretan khristien eginbidiak. Houna zer dion aita familiatakuaren eginbidetan gañen:

« Familia da nacionen edo gente bildien khuña; aita « amen etchetan da eragiten erresoumen zorthia.

« Hartakoz ere khristigouaren gal erazi nahiz ari « dienek, egin ahala egiten die familiaren phozouatzeko « eta sokhitzeko bere herrouetan, erran nahi beita « haurretan. Eztutu hourak gibeltzen phentsatiak « hola egitez aita eta amen zuzenak ebasten dutiela, « haier beitago bere haourren altchatzia, eta haien « gidatzia, Jinkouak hen emaitian ukhen dian geiiala « helzeko bidian.


« Hersiki obligaturik dira arren aita amak egin nahi
« deitzen bortcha-leger buhurtzera, eta bere haourren
« berek eraikiteko zuzenaren begiratzera. Behar tie
« Erreligioneko principiouetan eraiki, eta ez ihoula utzi
« sinheste gabeko phozoua edan liokeien eskoletarat
« jouaitera. Gazteriaren eraikitiaz denian kestione, ezta
« mugarik ezari behar sakrifiziouer eta neker, zounbat
« nahi handi izan behar dien. Hartakoz hanitch laida-
« garri edukitzten tugu katoliko, diharu hanitchen khos-
« tuz eta bihotz gorthura haboroueki, eskola khristiak
« egin dutienak, haourren behar bezala eraiki erazteko.

« Komeni da etsenplu eder hori jarraikirik izan dadin,
« beharrunia den leku orotan. Haregatik ezta ahatze
« behar zounbat handi diren haurrentako familian
« ukheiten ahal tien erakouspenen ondoramenak. Gaz-
« tek edireiten batie bere etchetan berthutezko chediak
« eta etsenpliak eta khristiantzo bizitzeko eskola,
« segurtaturik bezala lizate zozietatiaren eta erresoumen
« ountsa jouaitia. »


Horik dira, hitzez hitz, Aita Saintiak eman erakouspen-
nak. Eztu ourtherik orano emanik direla, eta halere goure
gobernia jarraikitzen da eskola khristien, kountre abiatu
gerlari. Ezta kasik egunik igaraiteen noun eztugun entzuten
eskola zounbaiten *laisisatza*, erran nahi beita serorer edo
fraider elkhitia. Igaran egunetan, etchebat emanik beitzen
seroren eskolatako, bortchaka serorak ohiltu dutie eta
errejentsak haien orde ezari. Eta populia oro bildu
beitzen serorak begiratu nahiz, zuzen zatekian bezala
eskola etchia eztzenaz geroz goberniarena, prefetak
igorri tu zaldun jandarma brigadak populiari buruz bil-
khuraren barreia eraztera, eta jente hanitch izan da
kolpaturik. Indarra dialakoz goberniak goitzarren egi-
tendu. Bena, halerik ere, ikhousten dutugu orotan
pratikatzen Aita Saintiaren gomendiak. Eskola komu-
nalak seroraz edo fraidez gabetzen tien gune orotan,
ezarten dutie serora edo fraide eskola berriak, hara
beitoua haour ozte handiena errejentak edo errejentsak

bazterrialatutzirik. Eta eztira chouriak berak fraide edo serora eskoletarak haourren igorliak; errepublikano hanitcheak bardin igorten tie, ezpeitie nahi sujet gaichto bilhaka ditian. — Beste lekhietan, eta berheziki hiri handietan, laikouak aphezer juntatzen dira haourrer katichimaren erakousteko, arrallerien eta trufen lotsarik batere gabe.

Esparantza dugu Ziberoua eztela gibel egonen, Aita Saintiaren gomendier jarraitzeko; han ere aita amek bere haourrer emanen eta eman eraziko tiela erreligio-niaren arauoko erakouspenak; hola baizik ezpeitie eginen haourren irousitaterik, ez eta berek ukhenen hetarik satifsatzone hounik. Ikhous beze bestetan zer etsenplu ederrak emaiten deitzen, eta haier jarraiki bite, Aita Saintiaren gomendiak orhitzen zaitzelarik.



1890 DEN OURTHIA.



IGARAITEN ari den ourthia ihoulaz ere ezta houn izan Frantziarentako. Ezi, azken bozkatik landa, gorriek ukhen dielakoz majoria, aitzinian egin urhatser jarraiki dirade. Botz galthero zirelarik, hitzemaiten zien aldebatetik bakia ororen artian, bestetik zuhurtzia legarretan, ziouelarik: *eñ legar emendiorik, eñ eta sos jesainerik.*

Dugun ikhous bere hitzak noula etcheki tien. Eta behinik behin, bakezko politika. Lege hounik egin ordutan, majoriak galdu du denbora ountsatto chuchenki izentaturik ziren 28 deputatu chourien haoustean; eta ezagutu, arte berian, ehunbat deputatu gorri, bortchaka, eta zuzenaren kontre burkhidek beno botz haboro bildu zutienak. Besterik egin du orano: Lodeva den hirian, chouria burutan jouan zen. Bena khountien nahastez,

chifrien harat hounakatzez, gorria izentatu die, (Maoulen egin nahi ukhen dien bezala.) Khanberaren eginbidia zatekian chouriaren ezagutzia : eta arren, ez ! Arrabozka ezarri die. Hori deitzen beita, gorrien artian, justo izatia. Justizia ederra, alatchoria !

Bozka aitzinian hitzemaiten bazien bakia gorriek, ezta ageri bazterretan : eta aldiz bethi aitzina erreligionari eta ountsaren althe direner abiatu gerlari. Aitzindari gorriek phakatzen tien gaseta tzar elibat, aphezen eta erreligionaren kountre laidoz eta gezurrez hanturik direnak, barreiatzen tie bazter orotara. Kargulantak ikhousten tugu gaitz, herrenbes, izi erazi nahiz goberniaren altheko eztirenak. Hetan badira orano bakant elibat houn baratu direnak ; bena eztzaie haizu mezalat jouaitia kargiaren galzeko erriskutan baizik.

Ezta egunik igaraiteen noun gasetek eztien berria ekhartene houlako hirian edo serorak edo fraide eskole-giliak igorri tiela. Arra hasten dira ere komentietako elizen zerratzen.

Eta hor bakezko politika !

Bozka aitzinian botz bilha zabilzan gorriek karraska handi : « *Ez legar emendiorik, ez eta sos jesaiterik!* » Rouvier ministrouak aithorthu du gerotzik hitz horik errai-teko houn direla botzka aitzinetik, bena eztela hetzaz khountu etcheki behar izentatu oundouan. Haou dela gorriek hitzemanen balia ! eta, ordu berian, deputatiengoa galthatzen zian hirour miliart eta 200 milioutara heltzen den budjetarentako.

Deputatu chouri zounbaitek, laborarier heltu egin nahiz, galthatu die legarren arhintzia fountsieraren gehienaz. Goberniak eztu nahi ukhen elkhi orotan hamabost miliou baizik, hamar liberako legar berri eta phe Zubatez emendatzen zutialarik sukrek egiliak.

15 miliou hetarik goure departamentiarik baduke bere phartia, eta Maouleko arrondisamentiaz mintzatzera, 110 mila eta 496 liberaen legarra balinbazen orai artio, eztate haboro 106 mila eta 565 liberaena baizik. Ezta,

ikhousten ehi da, liferentzia handi, ez eta hortarik legarra hanitch aphaltuko. Bena Gobernia nekez emaile balinbada, nountipaitik emana hatzamanen deiku. Ezi legarretan izan den, orai berri, utzulika zerbait etarik goberniak bilduko du erran den 15 miliou hora eta gaintika.

Houna zertan izan den khanbio hora. Orai artio bazen hounainbeste legar, (ourthe oroz bardin,) zathikatzeko etche eginetan; heben harat eztate haboro hola. Ezarri gei die etchetan ouste dien errebeniouaren araouko legarbat : ehun liberatako errebenioren, hirour libera eta laour sos legar. Kargulantek berek egin die, ihouri ere aholkurik galthatu gabe, etchen errebeniouen estimatzia. Deputatu chouriek nahi zien kountsellu jeneralak bederen estimatze hori kargulanteki egin lezen; bena majoriak, goberniareki akort, eztu nahi ukhen.

Ezta orano erraiten ahal zounbat haboro legar dukian utzulika hortarik goure arrondisamentiak, eta gutiago hiri bakhoitzak dukian emendioua Segur dena da departamentiak botian phakaturen diala berrehun mila libera haboro, etchetan gañeko legarraren. (*Laour ehun eta hirour etan hogeita bimila libera, berrehun eta hiruretan hogeita hirouren plazan*). Nourk berak badakike zounbatez emendatu zaitzon legarrak legarkariaren paperaren agertziareki. Houna cheheki khountia.

Departamentiarenko :

Legar etche eginetan handiturik.... 199.175 liberaz.

Legar lur fountsetakoua tchipituri... 28.083 liberaz.

Idokitzez hortik liferentzia, ehida ikhoustia badatia **la** departamentiaren 171 mila eta 092 liberaen legar emendiobat. Alegatzen die kargulantek eztatia emendiorik jaouregien eta hirietako etchen baizik : gero ikhousiko.

Erran tugunetarik jente zentzatiak ezaguturen die badukegula legar berri, gorrien althe botzak emanez. Eta horra berriz ere noula etcheki dien hitzemana : « *Ez legar emendiorik ezeta sos jesailerik.* » Eztira hartarik ari !



GASETA GAICHTOUA

.....

IRAKOURTEN dien librietañ ezta gaseta gaichtoua beno traidoriagorik. Gaseta harek, bere jakiteria atzamaiteko du; ikhousteko nahia phizten du irakourlian. Ezpadu uduritara emaiten hatsarrian eztela gastagarri, gordatzen du phozoua zerbait gisaz, alegia houn. Haregatik oro hartan mene dira : izkiribatzeko mañouskeria, berriak ez diren bezala emanik, gudu egiteko ouhourallu eta sakratu direner; holla tchipiek (feuilletons) eraikiten tie pasione gaichtouak. Oraiko ordietan, orok nahi die irakourtu eta irakourten die den ber. Orotara heltzen da gaseta gaichtoua, eta hora die nahienik, merkenik delakoz, behar bada dohañik ere, tchostazale delakoz. Horier behatzia gainti handia da : arra eta arra erranik dena ehiago sinhesten da; gasetenena ere ihourk eraikiten du, bera rentzen, nahi gaberik, eta hatzamanik baratzen, hartako berri egia eztinez eztirelakoz gezurtaturik. Gogoua arren gaseta gaichtouari etchen sartzen bada : otsoua arthelian da arresen desgollitzeko.

Aphezkupu baten artzaingouako leterabatetan libru eta gaseta gaichtouez irakourten dugu : « *Tardiores boni*, zioien beste orduz; gente hounak bethi ordu « houn. Ah! ezpalia orano berantiar baizik errelilio- « nian eta ountsan! Orai herrokatzentz dira gaichtouen « saldouan, irakourten haien libriak, barreiatzen hen « gasetak, her behatzen, hetat gogoua; berek eskia « hedatzen suiaren phizteko alde orotan, eta mundu « guzia erre tchispiltu denian, eztie ikhousten berek « suia attitchatu diela, erra eraziak laguntu tiela. O « khiristiak gutichago plaño eta elhe aouher! Hobe da « zien fedia erakouts dezazien seitez. Boronte arren « idokiteko zien emazte eta haourren eskietarik, horien

« gastazale gaseta gaichtouak ; eta balhune bouchibat
« zihauorek ez irakourteko.

« Bena sogizie. Elizaren etsaiek erosten tieia eta
« barreiatzen haren althe diren gasetak ? Ez ; hañ tie
« hugu, beldur dira argia hetan ediren, berian bere
« egon nahi beitira. Eta ziek argiazko haourrak, eztzi-
« natekeia beldur gastatuko ziradela ? »


Armanak haou lehentze egin zenian, ezkunian huts
egin irakourzaler erraitia zounbat mene zeraoukan
gaseta gaichtouen irakourtiaik. Ordian izkiribatiak
eztirate gutiago egia orai :

« Badira berheziki bi gaseta kanpañan arrount hedatu
nahi lutukienak. Hourak dira *l'Indépendant* eta *La
Petite Gironde*. Bazterretako irakourzaletan hanitch
guti dira *politikan* zerbait kounprenitzen dienik. Bere
gaseta tzarretarik baratzen zaien ekhoizpena da, deus
jakin gabe gaiza orotzaz mintzatzeko tireiabat, eta
berheziki Erreligioniaren eretzeko sendimentien ephel-
tarzun handi bat, irous ezpadutie osoki galtzen. Eta
gizoun hourak berak, gasetetan hañaiherdirenak, Elizan
ikhousiko tie liburu gabe, debeiu, uduri bobedaren
estokatu behar direla. »


Geroztik ahalaz barreiatu tie gaseta horik ; hen obra
galgarrian zinez laguntzen tu bestebatek, Uskaldunek
irakourten ehiago dena, erdi uskaraz erdi erdaraz
izkiribaturik delakoz. Hori ere bestiak bezala Erreligio-
niaren kountre, nahi bada egilek eztien aithortzen. Arte
hortan Erreligionia galtzez badoua : jente handiak,
etxekojaounak, gasetek, (haourrak aldiz aitamen lazu-
keriak eta errejenten erakouspenek) tie bide hounetik
hurruntzen.

Nouiz arren kounprenituko duzie, herritar maitiak,
bazterrialat utzi behar direla gaseta gaichtouak ?





APHEZ ZOUNBAITI PHAKIAREN IDOKITIAZ



DIALA ourthebat, setemereko bozkatik landa goberniak idoki zutian Uskal-Herriko hogeita bat aphezi bere phakiak. Eta *Réveil Basque* denak ordian, beste ungarunetako gaseta gorrieki, goberniak ountsa beno hobeki egin ziala.

Houna zer ziuan : « Aphezak bere khoroueki, Gobernazioak phakaturik dira, hala noula Prefetak, souprefetak, « kontrolurrik erejentak eta beste kargulant suberte « guziak. »

« Bethiz geroz phakazalia ezaguturik da naousitako, « buruzagitako ; bai eta phakatia, zerbutcharitako « mithil etako. »

« Eta zer erran, zer egin ziniro, botzemaile maitia, « zoure mithila, zoure zerbutcharia ikhous bazeneza « zoure kountre jeikitzen, mintzatzen, ahalaren egiten? »

Elhe ederrak horik, bena buruz phiko. Eta behinik behin, aphezak, goberniak phakaturik direlakoz, prefetat souprefetak eta beste kargulant guzien arauiala dira ?

Dugun ikhous arren, nouizaz geroz goberniak aphezak phakatzen tian, eta gero ageriko da *Reveil Basque* arrazouian denez.

Erreboluzione handiaren hatsarrian, Frantziako aphezgouak bazian hountarzun nasaiik eta jinphidez gaindikia. Houlakouak utzi zian ordeñuz elizabati hounain-bestetik diharu edo founts, eliza hartan erranik izan litian ourthian bat, biga, bost edo haboro meza bere arimarentako. Bestebatek utzi hiribati aphez baten bizi erazteko arranda. Halaz baziren hiri guzietan, handienetan, tchipienetan bezala, jentiaren usiaren arauka aphezak, ezpeitziren bizitzekouaz goberniari arrankuratzten.

Ordu harten lehen Erreboluzionia agitu. Goberniaren zorra tchipitzeko ordutan, lazki emendatu zen. Errebolu-

zione hatsarrian berrian, Necker ministrouak ziouan sos eskaza eztzela heltzen 56 miliouetara baizik. Ehi zatekian hori buru emaitia algar enthelegatuz. Bena ordunko gorriak eztziren hartarik ari. Kargudunetan eztzen nahaskeria baizik. Nazioneko Biltzarrenian egiten zen lege franko, bera batak bestiak beno founts gabiago, legarrak eztzutien phakatzen, eta kredita hil abantzu zen. Chedatze hounen eta kounfidantcharen faltaz, eztzen diharurik ageri.

Eztzen aski izanjesaite handirik egitia. Azarouaren bian, aphezkupu batek erazirik, Biltzarrenian izan ziren bozkak erraiteko goberniak nahi ziana egiten ahal zianeaz aphezen hountarzunez. (Eta hargatik, aphez gouako deputatiek eskeñtu zien 400 miliouen jesaitia, bere hountarzunak berme). Bozkatze horrek phiztu zian debadiobat gaitza. *Mirabeau*, Erreboluzionegilen artian zen pheredikari famatiak, ukhen zian aousartzia erraiteko naziona zela aphezgouako hountarzunen egiazko jibia. *Maury* aphezkupiak ihardetsi zeron, eztzela erran horren araua, zouñ nahi naousiri zuzenik baratzen. Etzen hoberik. Eta bost ehun eta laouretan hogeita sei deputatuk bai erran artikulu houni :

« Aphezgouako hountarzunez nahi diana egin dio nazioniak, kargalzen delarik beharden henian, elizetako phelchez, aphezen bizi eraztiaz eta prouber heltu egiliaz, probintziek erranen araua. Eztie aphez errelor bakhoitzari emanen phakutako hamabi chun libera beno gutiago, egongia bestalde. » Hor dela aphezer phakubaten emaitiaren hastepena.

Gero jin aphez ihiztekak, Erreligionaren ohiltzia, odol ichourtiak. Hantik denboraren burian, *le Concordat* (hora beita Aita Saintiaren eta Napoleon lehenaren artian igaran tratubat) ezagutu zian 14^{en} artikulian, eta utzuli aphezer phakia, zuzen zen bezala. Ordunko ber phakiak hounkitzen tie orano, nahi bada orai bitzitzia nekiago den.

Errepublikanobatek geroztik aithortu dian bezala,

« Bilzarrenak egin zian aphezen hountarzunen hartzez
« injustiziabat eta huts handibat : injustizia, bere
« hountarzunetarik naousi zireneng bilalitzez; hutsbat
« handia ez nahiz, gobernia 4 edo 5 ehun miliouen
« beharrian zelarik, behatu diharu hori eskentzen zutien
« aphezgouako deputatier: zorretan sarthu gei zien, eta
« gero emeki emeki salduren zutiela bere hountarzu-
« netarik. Holaz lurren balia, saltzepenak izartzez, gora
« baratzen zen; ber denboran kredita utzuliren zen,
« eta aphezen photeria eraitchiko behar zen heñiala.
« Bena zer agitu zen? Goberniak oro hartu zutian,
« saldu ez deusetan, ospitaliak eta eskolak ezarri peko
« zolan. Eta ororen burian bardin beharrunetan baratu.»
Horik berak dira errepublikanouaren erranak.

Eztakigula orai jin *Réveil Basque* dena erraitera
aphezen phakia prefet, souprefet, eta beste kargulanten
phakia uduri dela. Ez, ez, eta hullantzeko ere.

Nourbaitek hartzen deitzu dutuzunak oro : hen
ordari, zuzen den bezala. hitzemaiten deizu ourthe oroz
arrandabaten emaitia. Horrengatik ez othe zira libre
nahi duzunaren egitera eta erraitera zouri zor deizunari
zoure eginak edo erranak ez lakhet izanik ere? Duda-
rik gabe. Eta haren gogouaren kountre zerbait erran
edo egin duzulakoz, ezpadeizu zor deizun arranda
emaiten, ezta segur zuzenetik ari. Halaber goberniak
aphézer phakia idokiten dianian, hek egin edo erranen
gatik. Zor deie hitzeman bere hountarzunetarik gabetu
dutianaz geroz. Edo bestela, egiaz mintzatzera, ebasten
tu.

Hitzbat orano. *Réveil Basque* denak alegatzen du
aphezak, prefet, souprefet, eta beste kargulant suber-
tiak bezala, goberniaren zerbutchari direla. Uduri zai-
zia? Zer egiten du Goberniak kargulantez elikirik
eztianian? Edo leku houn batetik tcharrago batetara
igorten, edo zounbait aldiz ikhousten ohi dena, phorru
herrokatzera. Ber gisaz erabilten ahal othe dutu aphe-
zak? Ez. Begiratzen ahal dere beren phakhia, zuzen

gabe ; bena eztutu hiribatetarik bestebatetara khanbiatzan ahal. Aphezbaten khanbia erazteko behar da hersatu aphezkupiari ; eta aphezkupiak ezpalinbadu houn hartzen aphezaren khanbiatzia, aphez hora, goberniak nahi ala ez, egonen den lekhian. Arren aphezak eztirade, beste kargulantak bezala, goberniaren zerbutchari eta mithil. Ikhousi dugun bezala goberniaren eretzian hartzelant dira, eta goberniak phakia idokitzen derenian ouhouñzabat du egiten.



EGUN OROZ IKHOUSTEN DENA

PROZESA irabazi eta galdu ber gizounak. — Diala hirour etan hogei ourthe, Basaburutarbatek prozesbat bazian Dona-Phaleun. Nouizian behin bazouen Ibarroundoko edo Uthurchareko gaznarik ederrena erosirik, abokatiagana. Haren elhe phanatiak ountsa goititurik kholkouan, haien khurubilatzez, utzulzen zen etcherat, tther, tther, hirourgerren gaiko, Undureñen beherakouan eta goitikouan ogi eta gazna janik, kortillo erdibat ardoueki aldian. Mousa urkhaturik jelkhiten othe zenez Dona-Phaleurik, galtha behin han prozes ukhen dianari. Zounbat bidaje hara egin zutian ahazteko denbora bazian, lehenetik azkeniala. Arte hartan hogeiluseko eta hogeita bosteko pounga, abokatiaren lanen phakatzeko. Justo zen : batbedera bere goldenabarretarik bida. Nouzpaizt jiten zaio gacho prozeskariari letera abokatia ganik : « Ene adichkidia, badit plazera zouri berri hounaren emaiteko ; egun berian prozesua jujaturik duzu irabazi duzu. Jin zite jujamentiaren eraikitera nahi duzunian. »

Bere burkhidiareki prozeskan aritzeko beitzian hanteke mila lus, nahi bada bidaje ountsa eginik zen bere

mousareki aldi oroz prefosta, eztzian oro husturik. Hartzen du berareki, heltzen abokatiagana : « Berri houn, Pette Prozes, berri houn ! arren azkenekoz urhentu duzu, bai. » Eta souña berekatzen derolarik : « Egia bada ere luzetto izan duzu. Jar zite, Pette, jar zite... Paperek behar ukhen dizie egon grefan, badakizu hori. Jaoun gehienak behar ukhen dizu jouan houretat ; bakantzak jin tuzu ; negu hortan goutareki egon nuzu bi tchankhetan gañen : fouthro ! ezin jouan tribunalialat, aski phena beinian enegatik eta zouregatik. Bena Jinko hounak laguntu gitizu, ni sendotu beniz, eta zuk prozesa irabazi... Katalina ! Petteri edatera ekharozu. »

Arte hartan paperak uchtio biltzen, erdian jujamentia, ejerki biribilkaturik : « Oritz, Pette, orai berrogei eta hamar lus dukezu baratzen emaiteko. » — « Jaouna, zer? prozesa irabazi dudala, hainbeste emanik, eta orano berrogeita hamar lus? » — « O, bai ! Prozesa, Pette, zoure partidak galdu dizu. Bena eztuzu zuk irabazi ; nik dit irabazi. »

Horra zer ikhousten egun oroz. Halere prozeskan abiatzen direnák, bolak utsuturik, sosik batere igorri gabe, boronthate amíñibateki egitekouak chuchent ahal lutukiolarik, ez nahi zeditu, eta jouan ago eta buhurtzen ago ! Ah ! zounen egia behere hortan dabilan erran zahar haou ! « Bi prozeskaritarik irabazlia etcheat utzultzen dela athonas, galzalia aldiz pikarai ! »



UZTAILA 14^{eko} BESTA

MARTI. — Alagera haigu egun, Kadet. Badiagu arren berri houn zounbait ?

Kadet. — Bai alagera nuk, aithor diat, eta badiat nountik.

Marti. — Erran ezaguk arren nountik houna den hire boztarioua ; oro beharri nuk eta hireki alageratzia baizik eztiat galthatzen, gaizak balia dialarik.

Kadet. — Nitzaz trufatzeko aiherrian hizala ouste diat ; bena nourk achol du ? Jakin ezak arren bihar dela uztaila 14 gerrena, Frantziarentako ourtheburu pare gabia, eta egun horren utzultziareki frantzes odolik zañetan dienek boztariotan jarri behar diela, orai ni bezala.

Marti. — Ho, ho ! gaiza goratik hartzen duk. Ouste ukhen diat bethi Frantzes nintzala, Frantzia nourk nahi bezañ maite niala, eta haregatik, uztarila 14^{en} arrajitiak enik behin ere gorthu.

Kadet. — Eztakika arren halako egunian populiak Bastilla hartu ziala ?

Marti. — Egia hori, nik ere entzun diat ; bena eztakiatzer irabazi dugun.

Kadet. — Zer irabazi dugun ?... Irabazi diagu gizoun izatia, esklabotarzun gogorrenaren khatien etheitia, eta frantzes batizion bezala buria gora ebiltia.

Marti. — Elhe ederrak horik. Bena eder bezañ egia othe dira ?

Kadet. — Galtha ezak goure Jaoun Errejentari ; harek nik argitu ; eta badakik eztela gizoun jakintsia-gorik ungurunetan. Istorya ezagutzen dik nik Paterra dakidan bezañ ountsa, eta menturaz hobeki. Zouñen zalhe eta ederki izkiribatzen dian ?

Marti. — Ezpadut Jaoun errejentak bezañ ountsa izkiribatzen, badakiat amiñbat irakourten. Erran ezok arren nik kechi edo gezurti bat dela, edo eskolaren bester egiteko bidetan, berak eskolalat utzuli beharra badiala.

Kadet. — Zer ? goure jaoun errejenta eskolalat ? Badakika zer dioian ?

Marti. — Bai, bai, eskolalat, ikhasteko zer zen Bastilla, nour zen Bastillan, noula eta nourtzaz bortchaturik izan zen, eta noulako bilhakatu diren bortchatze

horren ondoramenak. Zer zen Bastilla ? Gaztelubat, beste hanitch uduri. Ala Bastilla erori delakoz ez othe da orai gehiago gaztelurik ? Bai, eta franko : leheneko baten ordari, orai hamar. Zouin ziren Bastillako soldadouak goithu nahi zutienak ? Berrogei mila aouher eta gosejankinek, emazte bizitze gaichtokobat aitzindari. Zer gatik hartu zien ? Fama beitzen, erregeren manuz, gizoun ogen gabiak saldoka zerraturik, pharete beltz hen gibelian hirotzen zirela. Eta zounbat ediren zutien esteiari ouste hetarik ? Batere ; bena bai laour gaichkigile, bi erho eta bere aitamek zerra erazi zien gizoun gaztettobat. Nour ziren aldiz, Bastillan berrogei mila aouher eta gosejankin haier buhurtzeko ? Hogeita hamabi Suisa eta laour etan hogeita bi soldado zahar (*Invalides*) gerletan zankhobat edo lohadarretarik bat galdu zutienak. Zer balentia ! berrogei mila ehuni buruz !

Eta ehun hourak eztutia buhurtu, ikhousten beitzien ezinian zirela. Nahi bada hitza bazien bizia utzik zerela, hanitch zathikaturik izan zutian, M. de Launay Bastillaren gehiena lehenetarik. Lephousa mouztu zieian, kanpo herresta eraman, eta buria gerren baten phuntan lanthatutik, kharriketan gainti erabili.

Zer diok, orai, Kadet, uztailaren 14 gerrenaz ?

Kadet. — Zer nahi duk erran dezadan ? Igaran badira hik dioian bezala, egun hora etzela boztariozko bena bai doluzko egunbat.

Marli. — Ikher ezak zouin nahi istoriatan eta ikhou-siko duk egiaz mintzo nizala. Hartakoz duk bestahorren altheko lehia hozten ourthe oroz. Hiri handietan goberniaren enplegatiek baizik solaz hoietan eztie hanbat haboro pharte hartzen, kargia gal lotsaz. Eta zer sinhetse-razi deikien hargatik ? Egun hora izan duk, gorrien arauera, libertatiaren hatsarria; erran beharragorik, egiazko libertatiaren ehortzia.

Erradak zeren egiteko libertatia dugun azkenian. Bestek nahi dienaren : phaka itzak legar geroago eta

handiago direnak, eta libre hiz; igor itzak nahi edo ez hire haourrak haboro erreligionerik eta Jinkorik ezagutzen eztien eskola elibatetara, eta libre hiz; goberniak hartzen teik hire semiak, eta libre hiz. Lehenago nahi zena soldado zian : orai, oro, nahi eta ez, soldado tuk. Errepublika maradikatu hounek behar badu orano luzaz irañ, badikiagu laster eskarnioz eta gosez hiltzeko edo goure herri maitiari bethikoz adio erraiteko libertaria. Eztuka ouste, Kadet, aski badugula azkenian liberte horietarik.

Kadet. — Bai, Marti ; ehiz batere gaizki mintzo. Banouak jaoun errejentari zer entzun dudan erraitera ; eta ezpadeit borogatzen ahal gezurrak direla, bouneta idok, eta koladabat egiten diat gorrier eta igaraiten chourien gaintialat.

Marti. — To ! orai danik algarreki gutuk ; ezi zounbat nahi maltzur izanik, eztitik jaoun errejentak izan direnak khanbiatzen ahal. Emadak eskia, eta biek dezagun khanta goratik uskara khantorebaten kobla haou :


Liberté, égalité et fraternité : (b^an)

Ai ! hirour gezur horik egiak balite !

Tra la la, la la la ! egiak balite ! (b^an)



HARGINBELTZAK



ERRELIGIONIAREN oraiko etsaiik gaitzena da Frama-zouak edo harginbeltzak deitzen direnen khidegoua. Satanen aourhidegoua da, eta eztu jagoiti debriak holako armadarik lurrian bildu Jinkouari eta Elizari gerla egiteko. Luzaz ulhunpetan bizitu dira ; eta bere gaichtokerien orhatzeko biltzen ziren leku gorde,

berek *thegiak* deithu tienetan. Diala ehun eta berrogei-
bat ourthe, eztien thegi bakant zounbait baizik Angla-
terran, Frantzian eta Alemañan ; orai hedaturik dira
alde orotara : batie *thegiak* hiri handi guzietan, khidiak
bazter orotan ; eta zer chedetarik ari dien ageriki era-
kousten. Haien tie izkiribatzen jenten phozouatzen egun
oroz ari diren gaseta gaichtouak, bai Frantzian bai beste
erresouma guzietan. Haien tie adelatzen Erreligioniarri
buruz oraiko denboretan eragiten tien lege gaichtouak.

Harginbeltzek dien lehen urhenburia da Erreligion
katolikouari gerla egitia, hora bera beita egiazkoua,
Jinkouak erakatsia ; biggerrena aldiz, erregen, eta berhe-
ziki errege khiristien bazterrialat ezartia, haien galeraz-
tia, Errepublika bazter orotan burutan hel eratzeko.

Bere khidegouan sar erazten tie ahalak oro ; bera
berheziki arrimatzen tie langile naousiak, gehiengoua
zerbait dienak, tratulant herriz herri dabiltsanak.
Prauberik eztie hartzen noun ezteien ezagutzen, bere
gaichtokeriaz eta mihi gaitzaz, zerbait photere besten
gañen. Printziak eta erregiak gogotik hartzen tie haien
jabetar zunaz eta dihariaz bere geietan sustengaturik
izateko ; bera ezteitze agertzen bere segretiak oro.
Judiouak eta khiristi gaichtouak lehiatu dira khidegoua
hortan sartzera. Bestalde zer nahi sinheste ete erreligio-
netako jentiak hartzen tie.

Izan dira, eta badira orano ere, bethi fedea hounezko
khiristiak enganatu tienak eta khidegouan sar erazi,
uduri eraztez hounki egiteko eta algarren laguntzeko gei-
den aourhidea gouabat dela. Bera hourak ere haborouak
behin sarthuz geroz, debrutzen tie. Erakasten deie utzi
behar tiela zeñharazu, khusokeria eta superstizione bai-
zik eztiren erreligioniak oro, eta haitatu harginbeltzen
erreligione bakhoitza, orotara hedatzen eta muga gabe
dena. Erreligione houra da bakhoitzaren libre uztia nahi
dianaren sinhestera eta nahi dianaren egitera. Erreligione
haren araouera ezta deus sinhetsi beharrik ikhousten
direnak baizik : ez badela Jinkorik, ez arimarik, ez be-


thiereko bizitzerik ; erakouspen hoiek hurruntzen dielako gizouna bizitziaren gozatzetik. Hartako buruz dirade aphezer eta elizako zeremonier, era nahi lutukie bistatik khentu, hoien ikhoustiak phizten beitu Jinkouaren eta iferniarene orhitzepena eta beldurra. Hortik ezagun da harginbeltzen erreligionia dela batere ez ukhetia.

Hortik orano ageri da zertako behin khidegouan sartu direnak eztiren nahi haboro elizetarat hullantu ; eta zertako hañ hastio dutien aphezak, erlejousak, eta eliza katolikouaren prosesione eta zeremonia ederrak.



PELOTAKARIEN KHANTORIA

(*Zaldubi artzain beltchak hountiak*)



I

Pelotak ouhoure du
Uskal herrieta,
Zeren den ederreña
joku guzietan.
Uskaldunak gastetik
pelotan plazetan
Agertzen du badinez
odolik zainetan.

2

Ohiko jokulari
handien izenak
Espantuka guntuke
erran behar denak.
Oraiko gizoun gazte
zainik badianak,
Orai ern'eraz ditzan
haien aiphamenak.

Jokulari zaharrak
jouaiten has orduko,
Berriak dira bethi
oundotik heltuko.
Uskal Herrian bada
bethiko mouthiko
Ouhoure hoi beitie
chutik edukiko.

3

Saratar hoiek dira
sortzez jokulari ;
Hazparnen ere hounak
badira nouiz nahi ;
Espelet eta Khanbon
berriz haz baledi,
Hanko gazten jokiak
baluke behari.

5

Plazabat izan, eta
jokularirik ez,
Hanitch lekhutau hortzaz
badaoude ahalkez :
Boulhasouen azturer
ukho hoi eginez,
Uskaldunak gaskoutzen
dira, nahi al'ez.

6

Igant'eta bestetan,
ofizioz goiti,
Pelota partidabat
behar leite bethi.
Hartan herriko seme
hoben den zounbaiti
Lizate agertzia
jokhatuz noubleki.

7

Usian eder zaiku
blekako jokia,
Trinket partida hounbat,
orobat luzia.
Haregatik naousi
ais' arrabotia :
Han da agertzen oso
jokuko chedia.

8

Gaztetik blekan baizik
ezpada jokhatzen,
Pharete hari joka
besoua da galtzen.
Bichta eta indarrak
guti han largatzentz;
Zabaleko jouari
nek'ez gero lotzen.

9

Eztu bere parerik
arrabot zabalak :
Pelotak aidatzeko
han dutu hegala.
Botiak et'arraferak
marrak bai gibelak
Han dutie agertzen
nourk bere ahalak

10

Pik errasak ezpadu
arrafera haoustean,
Arrabotutik joura
hurrun da hedatzen,
Zolakouak aidetik
edo phounpan hartzen :
Nourk bere partidari
faltan jo erazten.

11

Botariaren joku
latz eta borthitzza,
Hartan ardura dago
partidaren giltza ;
Pas' eskaizian edo
arte jo zorrotza,
Kintze gudukatian
harek azken hitza.

12

Plazan oro bildurik
hantche beha daoudé :
Bost bosti buruz dira,
nour zouiñ jokuz hobe ;
Zoinek jo chuchenenik
bizi ala lore,
Irabaziak gero
han du ouhoure.

13

Eguerdik joiten badu
partida artian,
Uskaldunak zer diren
ezagun ordian :
Buru has eta chutik
oro othoitziān,
Gu beno goragobat
beitugu gainian,

14

Pelota ? hori joku
ouhouragarria !
Ountasak dikan da
mous de Abadia :
Gaztiak pelotala
ditian lehia,
Harek emaiten deie
aousarki saria.

Zokho eta barnetan
dagon gaztiari
Trufa egin dezogun,
delakoz hain nagi.
Gaskounen tchostatzetan
nahi bada ari,
Eztela Uskalduna
ehiki ageri.

Kanpo haro ezpada,
hortakoz barnian.
Imid'eta hor dago
jokha bai mousian.
Ordian da ardoua
gocho mahainian.
Ountsa irabazirik
edaten denian.



LABORANTCHAZ

I. Errekoiltak 1890^{an}

IGARAN ourthian beno hobe izan dira aourthen errekoiltak eta berheziki Ziberouan : ogi bazeñ nasaiki.

Goberniak inprima erazi tu prefetek egin enkestak jakiteko Frantzia orotan zounbat ogi eragin dien. Haiék eman tien chifrien araou, izan da 119 miliou 436 mila eta 872 hamar gaitzurutako zaku, phezatzen beitie 91 miliou 767 mila eta 272 kintale handi. Khountu horren araou balizate Frantzia orotako zortzi miliou zaku igaran ourthian beno haboro. Hegualteko eta Ekhisargiako karieblek eman die bihi emendio hortarik haboroua, 4 miliou eta erdi zakuren ungarunia.

Bena le *Bulletin des Halles* eta *l'Echo Agricole* deitzenten tien gasetek egin die bere alde enkestabat et hek emaiten tien chifriak eztira goberniarenak uduri, hullanik ere. Gasetta hoiek dioienaz, ezta izan aourthen Frantzian 109 miliou ogi zaku baizik, eta noula hanitch gunetan eurite luzen kaousaz ogiak etzanik egon beitira, erran ahal daite badatiala 7 miliou zakuren ungarunia bihi gaichto. Halaz ezta baratzen 101 miliou ogi zaku baizik. Gazeta haien errana da orano aourthenko ogia

igaranekoua beno arhinago dela, 1890^{ian} zaku ogiak phezu diala bata beste 75 kgr. 800, eta igaran ourthian baziala aldiz, 77 kgr 200 (Gobernia ezta ber gisaz mintzo : haren enkestaren araou, ogiak aourthen igaran ourthian beno phezu hobe luke.) Errekoilta hanitch houn izanda 6 departamentutan, houn 37 etan; aski houn 41 etan (guriahetarik); tchar hirouretan, eta gaichto ihoun ere.

Ezaguturik beita ourthian Frantzia 122 miliou ogi zakuren beharrunian dela, ageri da errekoilta eskaza heltzen dela 18 miliou zakutara. Ments den horren eragiteko behar gunuke bi ithegun dian alhorrari eman erazi bi zaku eta erdi edo hirour orai beno haboro.

Nord eta *Pas-de-Calais* deitzen tien bi departamietan, lurrik hanitch ountsa erabilten eta houngaristatzent dutielakoz, ber errekoilta heña, eraikitendie aspaldiko ourthetan; hortik ageri da hanko lurrek eman ahala oro emaiten diela. Bena eztaite bardin erran ahal beste Frantziako gune haborouetzaz, eta orano gutiago gouriaz, lurra eztelakoz behar bezala erabilirik, ehun arako alhor batek ezpeitu emaiten zortzi zakutarik hamabi etara drano baizik, eta goaren gorennetik 16 zaku.

Esparantcha izateko da denbora hanitch gabe, alde orotan egiten abiatzen diren laborantchako Bilkurek (edo *Syndicats Agricoles*) eztela ezpere emanen aholku hounik, bena ezarriko tiela lohitien portadan merke eta khountu hounetan hounkallu berri hounak, haituzko aziak eta laborantchako tresna betheginenak.

Ordian Frantziak eraikiren du aski ogi bere beharrunen, atzetik erakhar erazi gabe.

Arho errekoilta ere aski houn izan da Ziberouan; goure kartielian berant ereñ zutien; eta uda bousti eta ez net bero zelakoz hanitch berantu ziren; bena larrazkenari buruz denbora bero eta eder beitzen, behar bezala zohitu dira.

Ipharaltek Amerikan arho errekoilta tchar da aourthen; eztie arren hantik igorriko Frantzialat usatu bezañ beste bihi. Kartiel berian eta orano Anglaterran eta

Hollandan eztira kountent lur sagarren utchura tcharraz. Frantzian hanitch izan da, bena hanitch lekutan bitriolstatu eztutilakoz beldur dira erdia beno haboro gasta ditian.

Ziberouan ezta aourthen gaztaña mentsik, igaran ourthian ezpazen ere. Gaztañatze ostoua tchar eta hilaide zen, eritarzun abiobat ukhenbalu bezala; bena aourthen handi eta sentho da. Hanitch gaichki jin lizate goure herriaren gaztañatiak eihart balite zounbait lekhutan egiten diren bezala.

Dugun orai, urhentze, bihitz berouñez. Hegoualtek Frantzian egin die ardou hanitch eta houn. Malerouski igaran setemerez, mahats baizik eraikiten den hirour departamentutan, hourte handi elibat agitu et damu hanitch egin mahatsak biltzeko ziren mahastietan.

Gune zounbaitetan, berheziki ardou hobenak eraikiten direnetan, mahatsak biltzeko saldu tie eta beste zounbaitetan ardouak brentsatik idoki bezañ sarri. — Orotan bihitzez errekolta nasaia eta houna.

Goure herrian mahasti guti da lehenekouen althe: eritarzunaren heltziareki galtzera utzi tie eta ez lekhu gutitan baizik erremediatsez begiratu edo arralanthatu. Lilitan zirelarik morkhouak hertu dira eta erekoilta tchipi izan da. Baratu zen mahatsa ountsa hazi eta hountu delakoz, ardou hounik, nahi bada guti, egin die.

II. Behi barrukien etchekiteko maneriaz. Iraourgeiez eta houngarriez.

Behin beno haborotan paseiun nintzanian Ziberouko ordoki eta mendietan gainti, gogaratu zeit sartzia laborari etchetan, barrukier sobaten egiteko. Orotan kasik ikhousi tut behi tegiak, hersi, ulhun, aire gabe, zola buztan lurrez eta selaouria aphal. Ithouñak elkhi aldiskal lur hora zilaturik, emeki emeki arrolla barna bilhakaturik, etchenkouer ezpeitzeren ohartzen haren bardintzia.

Kabala etzaintzen hola ikhoustiak erakharten nu erraitera baruku batek noula behar dian adelatu aberiak han ountsa izateko gisan, eta zer egin behar den barukiaren behar bezala ezarteko, etcheko jouanphidiak gora erazi gabe: ezi oraiko denboran laboraria behar da jarraiki bide merkener, legarrez eta phetchaz leherturik delakoz, errekoilta gaichtouek eta kabalen ezin saldu ahalak, peko zolala ezarririk.

Net harainti da behitegia egunik izan dadin han bizi behar diren kabaler osagarri hounaren emaiteko gisan; ezi, kabaler lotzen diren eritarzunak, agitzen, haborouetan barrukiak ezpeitira behar bezala egunik edo arthatutik, erran nahi beita, eztirelakoz aski sano edo aski adestaturik.

Idi eta laneko behi barrukian hersikiegi badira, eztira aisan phaousatzen ahal, eta indar galdiak ezpeitutie ar rahartzen ahal, lan gutiago egitendie.

Behi eznadunak ere eztu emaiten barruku houn batetan bezañ beste ezne barruku gaichtouan: holako barruku batetan dagouen kabalia ezta ederturen, eta ora ountsa ezaguturik eta borogaturik da kabalen egongia hobetzenago, eta bertanago gizentzen direla. Erran dezagun behien pekouak noula egin behar dien.

Hobena lizate segur pabatubaten egitia uhaiitz harri chehez, uzten delarik amiñibat patar phicharen igorteko arrollabatetara. Arrollak eguin behar duke manjateratik hurruntto, bi metra eta erdi edo hirour metratan, et ahar tarik phichak bilduko dira zilobatetara.

Bere indarra oro eta hounkuntia begiratuko du phicha harek emendatzen badie bitriol berde amiñibatez. Eta enplegatuko die gorotz urphouaren ihiztatze, edo baratzetan. Bena baratzeko belharren ihiztatze behar duke nahasi hirour edo laouetakouaz haboro hourek, hutsik denian erratzen beitu edert eraz orde.

Behien etzaintzia pabatuz egin nahi eztukianak buztan lurrez bardin egin ahalkodu, lurra ountsa zaphaturik eta jorik den ber. Bena ourthe oroz lurra arraberritu behar

duke, edo gutienetik bi ourthetarik. Arrollak izan behar duke bethi pabatz edo losa hersiz biazka juntaturik. Hobena lizate halere zimentez egitia, eta aski patar phichak hartan bara ezditian.

Horik dira bide segurrenak barrukien aphantzeko jouanphidetan sarthu gabe. Bada besterik, bena kharriouegi, eta etchalte tchipietan jarraikitzen ahaleztienak.

Orai zerbait iraourgeiez.

Ziberouan eta berheziki Pettarrian othe hanitch egarren die lohitiek ithouñen iraourtzeko. Aldiz othia iraourgeitako gaichtouena, eztialakoz kabalen gorotzaren hobetzeko indarrik batere, eta usian hurruntik erakharri behar beitie. Bestalde haren zankhoua ezta gorozten urphouan beste iraourgeiak bezala, eta hareki sartzen dira barrukian belhar hanitchto aziturik, alhorrok gerouan theiutuko tienak.

Iraourgeietan ehienik ukheiten ahal dena da lastoua ; eta ber denboran hobena, houngarrien berouarekin gorozten beita, eta gorotzaren balia emendatzen. Eztie kartiel hanitchetan beste iraourgeiik baliatzen. Bena goure herrian etchaltiak tchipi eta ez olhorik eragiten : lastoua arren eskaz, eta dena ere hanitcheek nahiago saldu, diharu beharra beita eta iratzia ordari bilhatzen merke delakoz.

Erran dugu eztela ezari behar othia kabalen pian : ez deusen balinbada, ezta gorago haren balia, iraourgeitako. Eztugu hori erranen iratziøz. Egarten die hanitch Ziberouan, eta arrazoueki, bena berantegi ebakiten die. Iratziak eztutuothiaren estakuriak eta etzaintze houna da. La France Agricole deitzen den gasetabatek alegatzen du ere, lastoua beno iraourgei hobia dela, aski goiz egiten bada eta ekhian idor erazten, belharra bezala. Ziberouan biltzen tie iratziak urrieta urhentzian, azarouan eta abentian ere, zohitu eta eihartu direnian. Eztie ordian houngarria lastouak bezañ houn egiten, zeren zahartziareki galtzen beitutie gazte eta chugun zirelarik zutien indar eta hountarzun haborouak.

Hounkallu batek, *azote*, *polasse* eta *acide phosphorique* deitzen tien printzipiouetarik eden ago eta hounkalla hobiago.

Eta arren haour duzula zer heñetan edireiten tien printzipio horik iratze berdian eta zaharrian :

	Iratze berdian	Iratze zaharrian
<i>Azote</i>	2,42 %	" 90
<i>Potasse</i>	1,15	" 10
<i>Acide phosphorique</i>	»,60	" 30

Chifru horietarik ehi da ikhoustia laborariak ekhoizpen handia lukiala, iratzen ebakitez arramaiatzian eta uztaila hatsarrian, osoki handitu gabe, eta ountsa idor eraztez ekhian. Hala bildu iratziak badu zazpitán *azote* haboro, ber lasto pheziak beno. Egia da iratze gutiago bil litzakeiela, noula larrazkenian ber lurrian bildia, bena iraourgeiaren hounak gainti liro gutiago lizatianaren balia.

Mila kilo iratze gazte ekhian idortuk badie hañbeste azote zouña hirour ehun kilo *nitrate de soude*, houkallu berria ekhoizpen handireki egarten diena zounbait ourthe hountan.

Hounkallu berri horrek balio du 23 libera kintale handia. Ikhous hortik zer ekhoizpen handia den iratziaren berde ebakitia.

Daigun ourthian mintzatuko gira hounkallu berriez eta hen egarteko mouldiaz. Eztira orano hanitch ezaguturik Ziberouan, eta hatik zounbait kartieletan haien ountsa egartiak dobla erazi tu errekoiltak. Hogei zaku ogi emaiten zien alhorrek emaiten die orai berrogeita hamar etara drano ourthe hounetan. Hebegaintiko etxeko jaounek behar lutukie hounkallu hourak esprabi. Menturaz ezagutzez haien hoununiak, nahiko tie ikhousi, bestetan bezala, erekoiltak doblatzen.

III. — Gaztañatzen eritarzuna.

Aihen ostouaren eritarzuna uduri den bat lothu da gaztañatzer eta intzaourtzer azken ourthetan, eta guneka damu handirik egin. Eritarzunaren abiatziareki ostouak itchura tcharbat hartzen; eihart, eta erorten; eta gero adarrak eta oundoua, denbora llaburren burian eihartzen. Eritarzun hori agertu da, orai diala bi ourthe, Laphourdin eta leku zounbaitetan oundo hanitch gal erazi. Ziberouan ere han heben ikhousten dira gaztañatze bakant elibat eritarzunak hounkirik.

Noula buhurt gaitz hori?

Ezin zuhañak ihizta aihena egiten den bezala: bena ezta horegatik behar besouak khurutchatu eta deusere egin. Bada bidebat segurra zuhañ erien sendotzeko ezpatu eritarzunak borthizkiegi hartu. Houna noula egin beharko den:

Zuhañte oundoko lurra idok zehebat edo bietan barna, eta hirour zehetarik bostetara ungurian, zuhañaren lodigouaren arao; gero betha ziloua, moulde hounez egiten den hounkalliareki.

<i>gorotz urphoko houngaritik.....</i>	100 kilog
<i>egur haouts edo suthondoko haoutsetik..</i>	10 "
<i>bitriol berde.....</i>	10 "

Hounkallu horren egiteko egarten tien haoutsak eta bitriolak behar dokie gorotzareki ountsa nahastekatu. Edo, zerbait gisaz, ezpatie zuhañte oundoula heltu gabe lan hori egiten ahal, beharko da gorotzez lehenik bethe ziloua gero gorotzaren gañen iraouri haoutsa eta bitriola ahal bezañ bardin. (Bitriol berdia saltzen da sei edo zazpi libera kintale handia, erran nahi beita ehun kilouak).

IV. Gatza.

Gizounak beraourtarik esprabatzen dian bezala jatekouer gatz ezarteko beharrunia, halaber kabalek ere gatza tchestatzen gogo hounez. Gatzak, chedatuki emanik den ber, mengoua phizten dere, eta batian, janharia arhintzen, khorphitzeko pharte guziak azkartzen, eritarzunak ohiltzen edo hetarik sendotzen, kabale gazte eta mendria gothortzen.

Ezaguturik da orano aresek, gatz jatez, jalkhi erazten diela larruko odol gaichtoua, eta ilhia chotil, eztia eta argi barra erazten.

Gune orotan eztzere eman behar gatza ber heñian. Heben emanen tugu kabale suberte bakhoitzari gatz emaiten ahal zeitzenaren arteko izariak. Egunian behardu :

Idigenteraz-					
ten denak..	80	gramatarik	120	ara drano	edo 4 ountza
Idi langiliak..	40	—	40	—	2 —
Behi eznadu-					
nak	50	—	60	—	2 eta erdi
Zamariak	25	—	30	—	1 —
Gizent eraz-					
tekoahariak..	20	—	40	—	1 eta laourden
Ardiak	10	—	20	—	erdibat
Ourdiak	30	—	40	—	1 eta erdi.

Gatz hori nahasten ahal da ekhoizpeneki, kabale gizentzekouer negian emaiten zaitzen edari bero eta jatekouer.

Bena gatzak dian hounune hobena da haren egartia belharren begiratzeko. Orok badakie idor eskaz sartzen den belharra sabaian berotzen dela, berotziareki bere baliotik pharte handiena eta sanounia galtzen, eta hala emaiten bada kabaler, eri erazten ahal tiala.

Belhar eskaz idortiari, sartzen dienian, gatz nahasten

bazaio, ezta berotzen, eta bere tcheste houna begiratzen. Hortako hirour edo laour zehetako belhar athekal, behar zaio gaña iraouri gatza, laour kilo (edo hamar etara drano) hogei kintale tchipi belharren, eta aitzina belharra athekatzen eta gatza ezarten, selaouriala edo hegatziala hel artekan. — Belharra sartzen denian azaouturik, zounbait gunetan usatzen dien bezala. azaouak chutik plantatzen tie bata bestiari arrimu, eta azaou herroka aldia bakhoitzan gaña gatza iraourtzen, erranden izarian. Kabaliak hanitch khoi dira bide horrez begiratu belharraz.

Gatzak hola hountzen batu bazkak, ber hountzepenak darotza hedatzen denian sorhouetan et baratzetan : sorhouan belharra thiran sor erazten, baratzetan aldiz lanthariak oro edertzen, barhiak eta harrak ohiltzen.

Baranthailan edo gorotzilan, denbora eurizu batez ahurretaka ourthouki behar du gatzak, ogia ereitian bezala. Bena noun ere igor beiliroe ahurretabatogi bihi, han beharko da ihour edo laour ahurreta gatz. Erran dut denbora eurizu batez, zeren eta gatza, hourtzen delakoz ordian berian, hobeki sartzen beita lurran barna.

Ezta lan horietako egari behar gatz chouria, khariouegi beita : bada beste gatz berhezibat, hanitch merke, deitzen diena frantzeses, *sel dénatré*, (gatz theiutia) legarrik phakatzen eztiana.





URHENTZEKO ISTORIA ETA ERASI

* * * * *

Ω EZUGILE *golubbat.* — Frantzes Pesarori komentalia bi aingera eder igorri zeitzon arima hounbatek. Bena mezugiliari aiher tchipit-tobat jin ; jakin nahiz zer gozo othe zien aingerek, bata gorde zian zuhaintzepe bat etan, komentu khantuko haristoian, utzultzian hartzeko.

Heltu denian komentalala, Frantzes Pesaroek hartzen dero ikouskeria ; behartzen du erremestiamentien emaiteko igorle houn hari ; adiouareki egin erri erkhaitzbat, eta phartitzen dira. Haregatik erritto harek mezugiliari gogoetak eman zeitzon. Badoua zalhe aingera gorde dian lekhiala. Bena haou zer da?... Suge handibat etara khanbiaturik aingera! Hustu eta hustu!! Buruko bilhoua chuti, lotsaturik, laster hurrun hantik : ikhous-ten komentuko saintiaren erri erkhaitzak zer ziouan. Arra utzultzen da hara : Frantzesen houñetan, ahozpe, pharkamentu galthatzen dero. Saintiak aldiz gomedatu zeron eztiki, izan ledin fidelago hantik aitzina ; jouan zedin berriz haritchpiala, edireneng ziala aingera ; erouan lezan bereki, gogo hounez emaiten zerola.

Lekhu berian ediren zian aingera ; har, eta jouan. Khountatu zian zer heltu zeron, ahalkiak utzirik, eta Frantzes Pesaroen merechimentietan orok kounfidant-cha haboro hartu.

* * *

Zouatzalarik bidebat gainti aphezbat eta marchandot elibat, eskarabillatena bere oustez, ari zen erreligionia-rentako murdurukan zerbait. Atrebitu zen erraitera aphezari : « Jaoun erretora, badakizia zer liferentzia den astobaten eta aphezkupubaten artian? » Ezpeitzian arraposturik ukheiten : « Arren nik erranen deizut :

astouak khurutchia bizkarrian dizu eta aphezkupiak boulharrian. » Aphezak ordian : « Nik ere zouri galthatzen deizut orai : zer liferentzia da martchandot baten eta astobaten artian ? » — « Ene fedia ! eztakit. » — « Arren ez nik ere. » Khantukouak oro, esku zapartaz.

* * *

Gaiherdi minian badoua nourbait poutikairiala, galtho bi sosen basalikoua. Saltzaliak hañ gaiza aphuren-tako jouaiten denez thenore hartan amuratzera. — « Hola duzu, ja ! eta eztit batere nahi. Nahiago nuzu jouan bestebat etara. Eta adio. » Poutikairia mar, mar, mar, baratu !

* * *

• Egun batez juje zaharbatu galthatzen zien zertako emazte beno haboro gizoun baden gaztelietan. Eta harek ihardetsi : « Zeren gizoun beno haboro emazte beita Elizetan. »

* * *

Laborari gaichobat hanitch eri beitzten, emaztiak egiten zeron egun oroz ollo salda. Bena eriak ezpeitzian salda baizik hartzen ahal, bere haourer emaztiak emaiten zian jatera ollakia. Haourtto haiiek goustu hartu zien, nahibada ez hala usaturik. Haour gehienak, behin, galthatzen dero amari : « Ama, nouiz artio dukegu hola ? » Amak : « Aita sendotu artio. » Eta haourak aitzina : « Balinba eztuzu behin ere sendoturen ! »

* * *

Hirour aphezgei astoz zouatzalarik, bathu zutien zaldiz jouaile elibat. Batek erran zeren : « Eta noula douatza astouak ? » — « Jaouna, batek arrapostu badouatzu zaldiz. »

* * *

Jaounbat, sudurra gorri gorria, burduñ bidian bida-
gez; eretzian gizoun gaztebat, ez ahalkor, erraiten
derona : « Jaouna, sudurra eztzaizu gorritu kharrou
leira mourtchatuz? Ezta hala? » — « Elaz, ene gizoun
maitia; areta ezne baizik eztit edan ourthebatez. » —
« Ourthe oratan? » — « Bai, jaouna ourthe orotan;
egia duzu unhudian nintzan ourthia zela. ».

* * *

Hiltzera zouela ikhousi oundouan gizoun zahar batek
emaztiari erran zian : « Jaounts itzazu arropa hobena,
urheria ederrenak. » — « Eta zertako? » — « Ikhous-
tez hañ eder, zu benturaz hartuko beitztu, ni utzirik,
heriouak! »

* * *

Maouleko ostattubatetan, bidajantbatek gomendatu
zian mithilari, iratzar eraz lezan biharamenian laourak
gabe, zeren eta jouaitekoua beitzen laourak eta erdietako
treñian.

Biharamenian, tanp, tanp, borthan : « Jaouna,
jaouna! » — « Eta arren, zer da? » — « Zuk zuniana
hartu behar laouretako treña? » — « Bai. » — « Eta
arren, jaouna, lotzen ahal zira arrankurarrik gabe ; phar-
titurik duzu. »

* * *

Florentziako aouherbat, zelia gañen eta lurra pian
baizik eztziana, jakinik barberbatek egiten ziala pilula
sos hanitch irabaz erazten zerenik, hasi zen halako zoun-
bait egiten eta saltzen, zer nahi eritarzunetako houn
zirela. Nouizian behin khaousitzen beitzien ichoustian,
famatu zen bedezi handi. Aldibatez astoua galdu zian
gizounbat jouan zeron galthero, eztzukianez erremedio

zerbait astouaren ediren erazteko : « Bai, arrapostia ; ori aski duzu, pilula hoietarik sei irestia. » — « Bola que fait. » Iresten tu, eta badoua. Zoulearik pilulek feit egin zien ; haika fitia lothu, laster bidia utzirik bazterrialat, zumatze batetan sarthu. Haou dela astoua alhan. Segur pilulak houn zirela ; heltu eta bathu orori ediren ziala bedesi handibat, eriak sendotzen eta astouak ediren erazten zutiana. Eni bezala better.

* *

Printzebat, hiribatetan igaraiten zelarik, jaoun merak kounplimentiak egiten zeitzon artian, beste batek nahi beitzian printzia liberti erazi, erran zeron merari : « Jaouna, zien kartielan zounbat balio die astouek ? » Merak houñ phuntetarik buriala so egin zeronian : « Jaouna zoure handigouako eta phezuko direnian, hamar lus. » Eta aitzina bere pheredikiari.

* *

Kapochibat, biltzen unguria eginik, komentialat utzultzen zelarik hatu ountsareki, oihan bazterbat gainti, aitziniala partu zeron ouhouñbat. Papotik lothurik, bizia edo mousa. Gacho gizounak, prauobe dela, komentia prauobe dela, ungurubat egin diala biltzen komentiarentako. Eztzen hoberik Bizia edo mousa ! Eta armabat sakolatik idokiten du brigantak. Zer egin ? Bortchak jorik, zakia phaousa lurrian, hora zabal, eta erraiten dero : « Har ezazu nahi duzuna ; horra ogi, ourdaki eta gazna phouska. » — « Bena mousa ! » dio brigantak. Bazterra heltu zen. Sos bildiak sakolatik idok, 36 libera, eta emaiten deitzo.

Nour bere alde badouatza. Zounbait urhats egin dieneko, kapochiak oihu : « Jaouna, jaouna, zerbait erran nahi neizun. » — « Zer da ? » — « Erremestiatzen zutut bizia utzi beiteitazu ; bena komentiala heltu nizatekianian, zer erranen deitade ? Arrobatu naiela sinhet-sirik izanen niza ! Aiharia erouan deitadela ? O ! jaouna,

zer eztut behar entzun eta benturaz ikhousi? » — Ouhouñak : « Urra ezazu zakia; ikhousiko dizie arrobatu zutiela. » Kapochiak : « Eztu kezu aski; thira ezazuene kapari pistolet kolpubat, eazaru bahi bezala, ikhous dezen bortchatu izan nizala ene bildien emaitera. » — Ouhouñak : « Bai; kapa zabal ezazu. » Thiratzen du: bam! Kapochiak so; deus ezta ageri. Zer erran nahi da haou? Ouhouñak : « Pholbora hutsez kargaturik nizun; lotsa erazi nahi zuntudan, bena ez gaichkirik egin. » — « Bena baduzu orano beste armabat? » — « Ez, ez. » — « A! eza! » Haou dela lephotik lothurik kapochia, ez peitzen lotsa aphottorouen, azkamaldibat behar bezalakoua brigantari : « Ale kokia! orai bardinetik! behar diagu jakin amaren thitia zouñek hobeki egoski dugun! » Ejerki marruskatu oundouan, uztendu hedallo briganta.

Har zakia eta sosak, laster komentiala bere balentiaren khountatzera laguner. Ouhouña ere araouz, jeiki zen ahal zenian.

* * *

Gizoun totots batek, houra uduri eztzen bati ari zen trufaz, beharriak handi zutialakoz : « Hala duzu, erran zeron bestiak; bena ere, aithor ezazu zouriak tchipiegi direla astobatentako. »





BURUILA edo SETEMER

Eg. llaburtzen dira or. 1 eta 3/4 ez.




- Ⓐ a. b. 3^{an}, goizanko 8^{or} eta 25^{min}.
- Ⓓ l. l. 11^{an}, goizanko 11^{cr} eta 17^m.
- Ⓔ a.b. 18^{an}, goizanko 5^{or} eta 13^{min}.
- Ⓕ a.l. 24^{an}, arratseko 11^{or} eta 17^m.

URRIETA

Eg. llaburtzen dira oren 1 eta erdiz.



- Ⓐ a. b. 3^{an}, goizanko or. bakh. eta 7^{min}.
- Ⓓ l. l. 10^{an}, arratseko 11^{or} eta 6^{min}.
- Ⓔ a.b. 17^{an}, arrastiriko or. 1 eta 54^m.
- Ⓕ a.l. 24^{an}, arrastiriko 2^{or} eta 6^m.



1 Asteharte.	s. Bizente, Aph.	1 Ostegun.	s. Remi.
2 Astizken.	s. Estebe, erreg.	2 Ostirale.	<i>Ainguru Begir.</i>
3 Ostegun.	s. Lizier.	3 Neskanegun.	s. Gregorio, m.
4 Ostirale	s. Taurin.	4 Igante. 20	Arosar. Besta.
5 Neskanegun.	s. Laurens J.	5 Astelehen.	s. Galla.
6 Igante. 16	s. Onesifore.	6 Asteharte.	s. Bruno.
7 Astelehen.	s ^a Rena.	7 Astizken.	s ^a Fide.
8 Asteharte.	A. D. M. SORTRZ.	8 Ostegun.	s ^a Birjita.
9 Astizken.	s. Omer.	9 Ostirale.	s. Denis.
10 Ostegun.	s. Nikolas T.	10 Neskanegun.	s. Frantzes Bor.
11 Ostirale.	s ^a Eujenia.	11 Igante. 21	A. B. Amataz.
12 Neskanegun.	s. Gui.	12 Astelehen.	s ^a Dominna.
13 Igante. 17	A. B. Izens.	13 Asteharte.	s. Edouar.
14 Astelehen.	Dna Khurutze.	14 Astizken.	s. Kalista.
15 Asteharte.	s. Nikomede.	15 Ostegun.	s ^a Teresa.
16 Astizk. IV Th.	s. Ziprien.	16 Ostirale.	s. Beltran.
17 Ostegun.	s. Fren Zaourak.	17 Neskanegun.	s. Edvije.
18 Ostir. IV Th	s. Josef. Kup.	18 Igante. 22	J. Luk Ebanj.
19 Nesk. IV Th.	s. Janvier.	19 Astelehen.	s. Grat, Olor.
20 Igante. 18	A.B. Doloratia.	20 Asteharte.	s. Johane K.
21 Astelehen.	s. MATHIU, Eb.	21 Astizken.	s ^a Ursula.
22 Asteharte.	s. Maur.	22 Ostegun.	s. Phetiri Alk.
23 Astizken.	s ^a Tekla	23 Ostirale.	s. Leotade.
24 Ostegun.	A. B. Librazalia.	24 Neskanegun.	s. Rafael, ark.
25 Ostirale.	s. Firmin.	25 Igante. 23	A. B. Patron.
26 Neskanegun.	s. Tomas Vill.	26 Astelehen.	s. Ebarista.
27 Igante. 19	s. Kosme eta Dam.	27 Asteharte.	s ^a Sabina.
28 Astelehen.	s. Benzeblas, m.	28 Astizken.	J. Sim. eta Jude, ap.
29 Asteharte.	J. MIGEL, ARK.	29 Ostegun.	s ^a Eusebia.
30 Astizken.	s. Jeroma.	30 Ostirale.	s. Kazien.
		31 Neskanegun.	s. Zirizio.

AZAROUA

Egunak llaburtzen dira oren rez.



- ⌚ a. b. 1^{an}, arratsek 6^{or} eta 42^{min}.
- ⌚ l. l. 9^{an}, goizanko 8^{or} eta 56^{min}.
- ⌚ a. b. 16^{an}, gaiherdi eta 25 min.
- ⌚ a. l. 23^{an}, goizanko 8^{or} eta 35^m.

ABENTIA edo NEGILA

Eg llaburtzen dira 27 min., 22^{no}.



- ⌚ a. b. 1^{an}, goizanko 11^{or} eta 54^m.
- ⌚ l. l. 8^{an}, arrastiriko 6^{or} eta 23^m.
- ⌚ a. b. 15^{an}, arrastiriko 1^{or} eta 2^m.
- ⌚ a. l. 23^{an}, goizanko 5^{or} eta 48^m.
- ⌚ a. b. 31^{an}, goizanko 3^{or} eta 29^m.

- | | |
|----------------------|---------------------------|
| 1 Igante. 24 | DONISANTORE. |
| 2 Astelehen. | Purg. Arimak. |
| 3 Asteharte. | s. Übert. |
| 4 Astizken. | s. Charles Bor. |
| 5 Ostegun. | s. Zakaria. |
| 6 Ostirale. | s. Leonart. |
| 7 Neskanegun. | s. Florent. |
| 8 Igante. 25 | Mart. hor. |
| 9 Astelehen. | s. Teodora. |
| 10 Asteharte. | s. Andreu Av. |
| 11 Astizken. | J. MARTINE. |
| 12 Ostegun. | s. Marti. |
| 13 Ostirale. | s. Stanislaz K. |
| 14 Neskanegun. | s. Josafat. |
| 15 Igante. 26 | ELIZEN SAKR. |
| 16 Astelehen. | s. Edmon. |
| 17 Asteharte. | s. Gregori, Taum. |
| 18 Astizken. | s. Odon. |
| 19 Ostegun. | s. Elisabet, Hgr. |
| 20 Ostirale. | s. Felis Valesi. |
| 21 Neskanegun. | A.B. PRESENTIA |
| 22 Igante. 27 | sa Sesilia. |
| 23 Astelehen. | s. Klement. |
| 24 Asteharte. | J. Johane Kh. |
| 25 Astizken. | sa Katalina. |
| 26 Ostegun. | s. Petiri, Al. |
| 27 Ostirale. | s. Virjile. |
| 28 Neskanegun. | s. Sostena. |
| 29 Igante. | ABENTUKO 1 ^a . |
| 30 Astelehen. | J. ANDREU, Ap. |

- | | |
|---------------------------------------|---------------------------|
| 1 Asteharte. | s. Eloi. |
| 2 Astizken. | sa Bibiana. |
| 3 Ostegun. | s. Franzes Xab. |
| 4 Ostirale. | sa Barbara. |
| 5 Neskanegun. | s. Sabas. |
| 6 Igante. | Abentuko 2 ^a . |
| 7 Astelehen. | s. Anbrosi. |
| 8 Asteharte. | A.B KONZEPP. |
| 9 Astizken. | s. Jeronze. |
| 10 Ostegun. | sa Eulalia. |
| 11 Ostirale. | s. Daniel. |
| 12 Neskanegun. | s. Melkiade. |
| 13 Ig. Abent. 3 ^a . | sa Luzia. |
| 14 Astelehen. | s. Arzene. |
| 15 Asteharte. | s. Mismen. |
| 16 Astiz. IV Th. B. | s. Eusebio. |
| 17 Ostegun. | s. Lazaro. |
| 18 Ostir. IV Th. B. | s. Gazien. |
| 19 Nesk. IV Th. B. | s. Urbaino. |
| 20 Igante. | Abentuko 4 ^a . |
| 21 Astelehen. | s. TOMAS, Ap. |
| 22 Asteharte. | s. Flabien. |
| 23 Astizken. | s. Onorat. |
| 24 Ostegun. | sa Delfina. |
| 25 Ostirale. | EGUBERRI. |
| 26 Neskanegun. | J. EZTEBE, m. |
| 27 Igante. | J. JOHANE, Eb. |
| 28 Astelehen. | Haur Inoz. |
| 29 Asteharte. | s. Tomas, Kant. |
| 30 Astizken. | s. Sabin. |
| 31 Ostegun. | s. Silvestre. |



IGARAN ARRABOZKAZ

IGARAN martchouaren bieko bozkan, M. Etcheverry 333 botzez burutan jouan da. Areta eztira lo egon sou-prefet, kargulant eta errejentak. Behin behin ouste ukhen die eztziale chouriak 237 botzen gañia bazik. Jaoun souprefeta zen trounpatu, dioienaz, chifrien bata bestiari juntatzian...

Dugun orai hitzbat, errejentek azken bozka hortan egin indarkez. Ezin ukhatia da, balakioz, mehatchuz, hitzemanez, egin ahalak egin tiela herrikal hamarbat botz haboro biltzeko M. Berdolyri. Beharere haien tchankhartiak aouherretan baratu dira, eta botzemaile chouri haborouak jarraiki aitzineko urhatser. Zounbait hatik, gogozkatu faltan, khordokatu dira.

Ezi zer dira izi erazi dutien erejent horik? Hounain-beste diharu gobernutik ukheiten dien jaountto elibat haourren eskolatzeko. Goberniaren althia etchekitez esparantza die araouz phakien emendio zerbait, gouri phaka erazten deikien legar haborokinen khostuz. Ezta arren estounatzeko bozketak guduketan ikhousten batugu ehelegaturik, Erreligionaren, ihiztazaleki batian, zounbait aldiz berak Erreligionaren etsai oldartzen badirade: saldu die bere libre izatia eta ere arduregi bere kountzentzia. Zertako dira usian hañ atrebitu? Beitakie eztelia achol handirik ukheiteko laborari beldurti eta jakingabetik. Makhila kolpu eta ostiko balie batzarritako, ez lirate hañbeste zotuka. Badakie nountik ari, ezi eztzaiku bakhoitzik ere jin aholkatzera, eta gutiago bortcha egitera botzaren eman erazteko sustengatzen zienari.

Goure boulhasouek gu beno zentzatiago ziren. Bilt-

zen zirenian herriko egitekouez mintzatzeko, edo jura-
ten izentatzeko bazterrialat igorten zutien goberniak
phakaturik ziren kargudunak oro. Bazakien hourak
ariko ziela gobernu phakazaliaren intresetan, herriaren
beno; eta beren artian hountzen egitekouak. Arren her-
ritar maitiak, zien boulhasouak uduri izan zitie: sekula
jiten bazeitzie errejentak behartzera botzaren emaiteko
gobernutarari ihardets izozie: Hortako phakaturik zira,
eztizugu zoure ganik aholku beharrik. Eta ezpadu ordian
berian lekhia hountzen ezar ezozie eskalanpou muthurra
nahi eztian lekhian Segur izan zitie nahigo dukiala zentzu
borogatu beno zentzu eskolatu.



HANITCH 1890 HOUNI

ZIBEROUKO, armanaka eginik da bi kartillaz algareki jossirik. Lehena, mehe mehia, hamabi hilabete-
ren egunaria dena, ourthiaren urhentzian berhezi behar duke, nahidenaren egiteko. Bigerren kartilla edo phartia, mintzo dena istoriaz, abis hounez laborariaren-
tako, erezetaz, etc., harek ourthe oroz behar duke begiratu arankurareki. Hollak markaturik dutuke bost ourthez arround. Bost ourthetako kartilla begiratiak, 1892^{ian} algarreki josten ahal diate libru gocho eta balious baten egiteko. Bost ourthe horietan eman artikulien eta erezeten edirengia inprima eraziko dugu 1892^{ko} armanakaren urhentzian.

(Begiratzeko kartilla, tchipiaren barnen, egunariaren barnen date; arren aski dukezie lehen bi hollen urratzia ourthiaren burian; ber denboran azken biak urraturik dirate. Halaz eztukezie ez kartilla desegiterik, ez joste-
rik, eta estalgia begiratuko duzie.— Ourthe igaranetako armanak zounbait baratzen da orano; falta edo galdu tukianak khaousituko tu Maoulen, Etcheberrienian, ber preziouan.)

OURTHEKO SASOUAK :

BEDATSIA hasten da martchouaren	20 ^{an.}
UDA hasten da arramaiatzaren	21 ^{an.}
LARRAZKENA hasten da buruilaren	23 ^{an.}
NEGIA hasten da abentiaren	21 ^{an.}

MERKHATIAK ETA FEIRAK

MAOULEN : **m.**, asteharte oroz ; **f.**, buruilaren 6ⁿ. — ATHAR-RATZEN : **m.**, astelehenez, amoustetik ; **f.**, Phentekoste biharamenian *eta* Donisantore oundoko astelehenian. — DONI JOANE GARAZIN : **m.**, asteleh. amous. ; **f.**, Bazko *eta* Phentekoste ondoko astehartian. — DONA PALEUN : **m.**, ostir., amoust. ; **f.**, Bazko ondoko ostegunian, *eta* abentiaren 26ⁿ. — GARRUZEN : **m.**, ostir. amoust. ; **f.**, agorrila 1ⁿ *eta* azaroko lehen astizkenian. — IRISARIN : **m.**, neskaneg., amoust., **f.**, baranthall. 3ⁿ *eta* aphiril. 15ⁿ. — HAZPARNEN : **m.**, asteh. amoust. ; **f.**, Bazko ondoko astizk. — IZOURAN : **m.**, asteh. amoust. — NAVARENKOSEN : **m.**, astizk. ; **f.**, Erramu aitzineko astizkⁿ, *eta* abentⁿ 8ⁿ. — ORTHEZEN : **m.**, asteh. ; **f.**, martchoko *eta* urrietako lehen astehⁿ. — OLOROUN : **m.**, ostit, *eta* asteh. ; **f.**, maiatz. 1ⁿ; *eta* burrullⁿ, 8ⁿ, hirour eg. — PAOUBEN : **m.**, astel. *eta* osteg., **f.**, Gorozum. lehen astelehnⁿ, *eta* Jaoundoni Martinez, 8 eg. — SALIESEN : **m.**, ostegunez ; **f.**, baranh. heren astizkⁿ *eta* urrietaren asken ostegunian.





Edirengia

I.	Aita amen eginbidiak	97
II.	1890 den ourthia.	99
III.	Gasetta gaichtoua	102
IV.	Aphez zounbaiti phakiaren idokitiaz.	104
V.	Egun oroz ikhousten dena.	107
VI.	Uztaila 14 ^{eko} besta.	108
VII.	Harginbeltzak.	111
VIII.	Pelotakarien khantoria.	113
IX.	Laborantchaz	115
1 ^{ik}	Errekoiltak 1890 ^{an}	115
2 ^{ik}	Behi barrukien etchekiteko maneriaz; — viaougeiez eta houngarriez.	117
3 ^{ik}	Gaztagnatzen eritarzuñaz.	121
4 ^{ik}	Gatza	122
X.	Urhentzeko istoria eta erasi	124



d'abord
Traduction de la couverture de l'almanach basque -

Almanach basque

ou

Indicateur des journs du pays de Soule.

pour l'année 1891

Dieu et la ville!

Cosmopole et travail!

Et irentoujours basque!

Lao! Lao!

T-a-a-a-a-a-a-a-o!

à Paris

chez L. de Soule

rue de Vaugirard, n° 58.

Table des Matières.

I	Dévoirs des pères et mères	97
II	L'année 1890	99
III	Pauvre journal	102
IV	De la suppression de traitements de qq curés	104
V	Ce que l'on voit tous les jours	107
VI	Fête du 14 Juillet	108
VII	les noirs à la lumière (mot fréquemment employé)	111
VIII	Chanson des joinvres de Calle	113
IX	On De l'agriculture	115
10	la récolte de 1890	115
	2° De la manière d'entretenir les étables de vaches	117
	3° Maladie des chataigniers	121
	4° Le sel	122
X	L'histoire de la fin	124